LEHEN MUGIKORRA: ADINAK, JOERAK

eta familien iritziak

ESKUTIK | TEKNOLOGIA ETA SARE SOZIALAK

Umeek zein adinetan jasotzen dabe lehen mugikorra?

Gurasoen esanetan batez besteko adina - Pew Research Center



1. grafikoa. Lehen mugikorra izateko batez besteko adin “egokia” eta erantzenene banaketa (%)

Iturria: Gurasoen esanetan batez besteko adina - Pew Research Center

Daborduko mugikorra daben umeak (AEB) - Scientific American

Adina	Smartphonearen erabilera	Ehunekoa
11–12 urte		**% 60**
12–13 urte		**% 70**

2. grafikoa. Nerabezaroaren aurreko adinetan smartphonearen benetako erabilerari buruzko datuak

Iturria: Daborduko mugikorra daben umeak (AEB) - Scientific American

Espainiako egoera - La Vanguardia

Datua	Balioa
Emoteko ohiko adina	**12 urte**
Adin egokia dala uste daben gurasoak	**% 22**



3. grafikoa. Adinik ohikoena eta familien arteko adostasun-maila.

Iturria: Espainiako egoera - La Vanguardia

Nerabeen iritzia - PubMed



4. grafikoa. Gazteek lehen mugikorrari emoten deutsien balioa

---

4. grafikoa. Gazteek lehen mugikorrari emoten deutsien balioa.

Iturria: Nerabeen iritzia - (PubMed)

Joera globala (UNICEF eta beste iturri batzuk)



5. grafikoa. Teknologia digitalean sartzeko garapena eta erabilera digitalaren aurrerapena.

Iturriak: UNICEF Espainia, INE eta pediatriaren arloko azken ikerketak (2024–2026)

Lehen mugikorra emoteko adin on edo egokirik ez dago: garrantzitsuena laguntzea, mugak ezartzea eta digitalki heztea da.

Zer dinoe ikerketek lehen mugikorarri buruz?

Lehen smartphonea izateko ohiko adina

Pew Research Centerrek eginiko inkesta baten arabera, guraso gehienek (%68k), umeek euren mugikorra 12 urte edo gehiagogaz izan beharko leukie. % 26k bakarrik uste dau egokia dala 12 urte bete aurretik eta %6k uste dau haurtzaroan eurena izatea ez dala egokia.

Familien arteko benetako erabileraren datuak

AEBetan, 11-12 urteko haurren %60 inguruk dabe euren smartphonea, eta eskola-urteek gora egin ahala, zifra hori handitu egiten da, 12–13 urteko haurren %70ek baino gehiagok baitabe gailua.

Espainiako eta Europako egoera

400.000 familiaren datuetan oinarrituriko ikerketa baten arabera, nahiz eta gurasoen %22k bakarrik uste izan egokia dala, Espainiako adingabe gehienek euren lehen mugikorra 12 urte dabenean jasotzen dabe.

Gazteek eurek dinoena

Nerabeen arteko inkestek, gazte askok lehen mugikorra 12-13 ebezanean eskuratu ebela erakusten dabe. Gainera, gazteok eskuko telefonoak familiarekin komunikatzeko independentzia eta segurtasuna emoten deutsielakoan dagoz.

Jabetzaren joera globala

Nazioarteko datuen arabera, gomendioak testuinguru eta herrialedearen arabera aldatzen badira be, urteakaz, smartphoneak eskuratzeko adina jaitsi egin da eta gero eta ume gehiagok eta gazteagotan jasotzen dabez gailu digitalak.

Gai honeetan sakontzeko interesgarriak izan daitekezan iturriak

Iturria	Edukia
Etxean arau eta muga argirik eza Magisnet	Kataluniako Universitat Obertak eta Gironako Unibertsitateak eginiko ikerketa batek, nerabeen erdiak baino gehiagok mugikorrak edota gailu digitalak erabiltzeko familia-arau argirik ez dauala ondorioztatu eban. Era berean, erabilera orekatua izan daiten, jarraibideak ezartzea funtsezkoa dala nabarmendu dabe.
Smartphonearen eraginari buruzko gurasoen kezka Pew Research Center	Pew Research Centerren inkesta baten arabera, gurasoen %70 inguruk uste dau, seme-alabentzat 12 urte bete orduko smartphonea izatea onuragarria baino kaltegarria izan daitekela; beraz, askok mugak edota kontrolak jartzen dabez.
Mugikorra emon aurretik zer itxaron zeinkean? Qustodio	Qustodioren The Digital Dilemma ikerketaren arabera, gehiegizko erabilerari, heldutasunari edota arriskuekiko esposizioari buruzko kezkak aipatuz, atzera begiratuta, gurasoen ia erdiak, seme-alabei lehen smartphonea emon aurretik, gehiago itxaron beharko ebela onartu eban.
Esposizio goiztiarren eta osasunaren arriskuak Research.com	Ebidentziak, smartphoneen eraginpean oso goiz egoteak, nerabeen garapen-, arreta-, lo-arazoekin nahiz ongizate psikologikoko arazoekin zerikusia izan daikela iradokitzen dau. Zuhurra danean, laguntzeak eta eskuratzeko unea atzeratzeak dauan garrantzia indartuz.
Familietan, digitalki hezteko irizpederik eza Economía Digital	Adituek dinoenez, familia askok mugikorrak edota internet hezkuntza-irizpide argirik gabe erabiltzen dau. Honek, muga osasungarriak ezartzea eta erabilera behar bezala gainbegiratzea zaildu daikelarik.
Mugei buruzko iritzi profesionalak El País	Psikologo espezializatuek ohartarazi dabenez, adingabeek ohitura digital osasungarriak garatzeko funtsezkoa bada be, guraso asko beldur dira pantailei muga argiak jartzeko.
Internet familian: erabilera segururako jarraibideak. Euskadi.eus	Gurasoentzat eta beste pertsona heldu batzuentzat.

Erredakzioa eta analisia:
Zaira Vicente · EDUCAIDEAko zuzendaria.
ESKUTIK proiektua· Begoñazpi Ikastola